

UDAL KONTSEILUKO OSOKO BILKURAN

Euskal Herriko bakearen aldeko Bartzelonako adierazpena

Bost hamarkadako indarkeriaren ondoren, Euskal Herria bizikidetza, bake eta adiskidetzearen aldeko testuinguruan murgilduta dago. Agertoki berri honen atarian, Bartzelonak, indarkerien kontrako manifestazio jendetsuen aurrekaria izanik eta, aldi beean, terrorismoaren basakeria pairatu ondoren, euskal gizartearen pluraltasuna babestu nahi du, etapa berri bat sendotzeko bidean.

Hipercor-eko atentatuaren 30. urteurrenarekin batera, *La ferida d'Hipercor* ('Hipercor-eko zauria') ekimenarekin egin bezala, urrats berri bat eman nahi du hildakoen eta euren familien memoriaren oroimenean. Eta egin nahi du, etorkizunera begiratzuz, gertakari horiek sekula errepikatu ez daitezzen, eta bakearen kultura eta ez errepikatzearena zailtzen duten mendeku jarreretatik urrun.

Horregatik guztiagatik, Bartzelonak elkartasuna agertzen dio erakunde, alderdien gehiengo eta gizarte zibilaren bitartez, askatasun, elkar ezagutze, bizikidetza eta biktima denen mina sendatua izateko etorkizunaren alde lanean ari den euskal gizarteari. Katalunia eta Euskal Herriaren arteko loturak interpelatzen gaitu giza eskubideen aldeko gizartea garen heinean.

2018ko ekainaren 13an gauzatutako *Construint la pau* ('Bakea eraikitzen') eztabaida eta gogoetarako jardunaldien harira, aditu, indarkeria desberdinen biktimek, eta Kataluniako alderdi politikoen pluraltasunak konpromisoa hartu zuten, hurrengo adostasunen bitartez, bake prozesua lagundu eta errazteko:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

- **LEHENA.** Euskal Herriko bizikidetzarako giza eskubideen babesa ardatz nagusizat eta erreferentzia bakartzat hartzea, eta baita ez errepikatzeko bakearen kultura sustatzea ere.
- **BIGARRENA.** ETArekin biktimen egiaren, justiziaren eta konponketaren hatsarreak defendatzea, eta baita 50 urteko gatazkan izan diren gainontzeko indarkeria adierazpenenak ere.
- **HIRUGARRENA.** Presoak jaioterrira edo familien bizitokira gerturatzea, gaixo dauden espetxeratuen tratua humanitarioa eta beste estatuetan betetako kondenen pilatzea ahalbidetzen duen espetxe politikaren aplikazioa sustatzea; legedi europarrak eta giza eskubideen estandarrek aurreikusten duten bezala.
- **LAUGARRENA.** Espetxeratuei aholkatzea egindako mina aitortzea, gatazkaren biktima desberdinen adiskidetzea eta elkar ezagutzea asetzeko.